


IRAKASGAIEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA 2025-2026

 BENTADES IKASTETXEA	
Ikasgaia/ Arloa	FRANTSESA
Irakaslea(-k)	MERITXELL PLAZA
Zikloa/ Maila	DBHI
Ikasturtea 2024-2025	2025/ 2026
Talde kopurua	
JUSTIFIKAZIOA	
<p>Programazio hau irakasgai bakoitzeko testuingurua kontuan hartuta garatu da, eta helburu nagusia ikasleen ikaskuntza esperientzia ahalik eta eraginkorrena izatea da. Lehenik eta behin, ikasleen abiapuntua aztertzen da, bakoitzaren gaitasunak, aurrezko ezagutzak eta behar bereziak identifikatuz. Ondoren, gelaren egoera eta ikastetxearen errealitate zehatza kontuan hartuta, programazioak ikaskuntza esanguratsua sustatuko duten estrategiak proposatzen ditu.</p> <p>Urtez urte egindako memoriak eta hobekuntza-proposamenak erreferentziatzen hartuta, programazio honek aurreko ikasturteetan identifikatutako hutsuneak zuzentzea eta indarguneak areagotzea du helburu. Ikasleen garapen akademikoa, soziala eta pertsonala optimizatzeko, programazioa etengabeko ebaluazioaren bidez egokitu eta hobetu egingo da, beti ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoari eutsiz.</p>	
FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
Hizkuntza Komunikaziorako konpetentzia (HKK) Konpetentzia Eleaniztuna (KE) Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia (STEM) Konpetentzia Digitala (KD) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII) Herritartasunerako Konpetentzia (HK) Ekintzaitza Konpetentzia (EK) Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK)	<u>Ikus anexo</u>
<u>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK (LINK)</u>	
1.Oinarrizko diskurtso-generoetako eta eguneroko erabilerako testu labur eta errazak, argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, adibidez, esanahien inferentzia, zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan haien edukia baloratzeko.	1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodal oso labur eta errazen zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua bilatzea eta interpretatzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin. 1.2. Komunikazio-egoerarako estrategia eta ezagutza egokienak lagunduta hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra eta funtsezko informazioa ulertzeko, eta hitzik gabeko elementuak interpretatzeko.

<p>2. Oinarrizko diskurtso-generoko eta eguneroko erabilerako testu originalak sortzea, laburrak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.</p>	<p>2.1. Komunikazio-egoerara egokitutako testu oso laburrak, oso errazak, alde zuzenak, aurretik prestatuak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez eta ahozkeraz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikia eginez.</p> <p>2.2. Testu oso laburrak eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta oinarrizko lexikoa izango dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideak betez, banaka edo modu kooperatiboan, tresna analogiko eta digitalen bidez.</p> <p>2.3. Lagunduta, testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko oinarrizko ezagutzak eta estrategiak hautatzea eta antolatzea zereginaren eta beharren arabera baliabide analogiko edo digital egokienak erabiliz.</p>
<p>3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoaz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.</p>	<p>3.1. Egoera interaktiboak, sinkronoak edo asinkronoak, oso labur eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, alde zuzenak landutako eta adostutako baliabideetan oinarrituz (hala nola errepikapena, erritmo mantsoa edo hitzik gabeko hizkuntza), eta enpatia eta hizkuntza-adeitasunarekiko errespetua erakutsiz, baita solaskideen komunikazio-beharrekiko ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.</p> <p>3.2. Lagunduta eta hurbileko inguruneetan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eta argibideak eta azalpenak eskatzeko eta formulatzeko oinarrizko estrategia egokiak hautatzea eta antolatzea.</p> <p>3.3. Plangintza-eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.</p>
<p>4. Hizkuntza desberdinen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko.</p>	<p>4.1. Eguneroko egoera errazetan testu, kontzeptu eta komunikazio oso labur eta errazak inpheritza eta azaltzea, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta beren hurbileko ingurunean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa azalduz, hainbat baliabide eta euskarri baliatuz eta gidatuta.</p> <p>4.2. Lagunduta, zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmotara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.</p>
<p>5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzei jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.</p>	<p>5.1. Zenbait hizkuntza aldatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gogoeta eginez, lagunduta.</p> <p>5.2. Atzerriko hizkuntzan oinarrizko komunikazio egoeretan komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko, oinarrizko estrategiak eta ezagutzak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.</p> <p>5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzea eta erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategia eraginkorrenak lagunduta hautatuz eta autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarrizko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaste-eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapenak esplizitatuz eta partekatuz.</p>
<p>6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa modu kritikoa baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz eta errespetuz jokatzeko.</p>	<p>6.1. Enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan, hala nola eTwinning plataformak emandakoetan, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguru errezetan diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo oro baztertuz.</p> <p>6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoak duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa onartzea eta horietaz hausnartzea, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten elementu kulturalak eta linguistikoa partekatzeko interesa erakutsiz.</p>

SEKUENTZIA eta DENBORALIZAZIOA			
1. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua / Zer ebaluatuko da?	BALIOAK		<u>Kompetentzia espezifikoak laburtuta</u>
1. FROGA.PROIEKTU KOLABORATIBOAK 3-4 PROIEKTU TXIKI EBALUEKETAKO	70%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza erreperitorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
2. FROGA (AUTOEBALUAZIO TESTAK)	20%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza erreperitorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
3. FROGA (AHOZKO ADIERAZMENA ETA PARTEHARTZEA)	10%	<input type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza erreperitorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
2. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	BALIOAK		<u>Kompetentzia espezifikoak laburtuta</u>
1. FROGA.PROIEKTU KOLABORATIBOAK 3-4 PROIEKTU TXIKI EBALUEKETAKO	70%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza erreperitorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.

<u>2. FROGA (AUTOEBALUAZIO TESTAK)</u>	20%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza errepertorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
<u>3. FROGA (AHOZKO ADIERAZMENA ETA PARTEHARTZEA</u>	10%	<input type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza errepertorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
3. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	Konpetentzia espezifikoak	<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>	
<u>1. FROGA.PROIEKTU KOLABORATIBOAK 3-4 PROIEKTU TXIKI EBALUEKETAKO</u>	70%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza errepertorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
<u>2. FROGA (AUTOEBALUAZIO TESTAK)</u>	20%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza errepertorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
<u>3. FROGA (AHOZKO ADIERAZMENA ETA PARTEHARTZEA</u>	10%	<input type="checkbox"/>	1.Oinarrizko testu errazak ulertzea eta interpretatzea
		<input type="checkbox"/>	2.Oinarrizko testu laburrak sortzea, egokitasunez eta koherentziaz.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.Elkarreraginean aritzea komunikazio helburu zehatzei erantzuteko
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.Hizkuntzaren erabilera eta bitartekotza egokia egitea, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.Hizkuntza errepertorioa osatzen duten estrategiak eta ezagutzak mobilizatzea eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Hizkuntza eta kultureen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.

BERRESKURAPEN eta INDARTZE SISTEMA

DBH guztian ebaluaketa jarraia edo etengabekoa da. Ebaluaketa guztietan erreperazioak egingo dira eta erreperaketa horietan menperatzen ez diren gaiak soilik sartuko dira. Horrela gainditu gabeko ebaluaketa bat gainditzeko beste aukera bat egongo da. Ekainean gainditu ez dena gainditzeko aukera egongo da. Ebaluaketa bakoitza gainditzeko ezinebestekoa izango da edukien %50 gaindituta izatea. Ekainean irakasgaia gainditu gabe geratzen bada ikasleek hurrengo kurtsoko edozein ebaluaketa gaindituz gero, aurreko ikasturtea gaindituzat emango da. Ikasleak eskatuz gero, irakasleak udan lan egiteko materiala eskainiko die ikasle hauei.

ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA: KALIFIKAZIO TRESNAK eta IRIZPIDEAK

Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezten. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa kompetentziak ebaluatzen zuzenduko da (ez oinarritzko jakintzak ebaluatzen). Kompetentzia espezifikoaren ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarri erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzako da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako kompetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualak egokituz (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, frogak, ekoizpenak, audioak, bideoak...). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

METODOLOGIA

Programazio honetan erabilitako metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza erritmoa eta estiloa errespetatzen duten jarduerak eta estrategietan oinarritzen da. Ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen da, non ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan protagonismoa hartzen duten. Horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, problemen ebazpena, eta egoera errealean oinarritutako ikaskuntza erabiliko dira, ikasleen motibazioa eta autonomia bultzatuz.

Materialak eta jarduerak anitzak eta eskuragarriak izango dira, aniztasuna errespetatuz eta ikasleen beharretara egokituz. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) kontuan hartuta, material didaktikoak eta ebaluazio tresnak inklusiboak izango dira, ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Era berean, teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikaskuntza prozesua aberasteko eta ikasleen trebetasun digitalak garatzeko.

Azkenik, ebaluazio formatiboa eta etengabea izango da, ikasleen aurrerapenak aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. Metodologia hau ikasleen motibazioa eta inplikazioa handitzea du helburu, gaitasun guztiak modu integral eta orekatuan garatzeko.

ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da hezkuntza inklusibo eta kalitatezko bat bermatzeko. Ikasle bakoitzaren behar bereziak eta ezaugarri indibidualak identifikatzen dira, eta horien arabera egokitutako estrategia didaktikoak garatzen dira. Horretarako, hainbat baliabide eta metodologiak erabiltzen dira, hala nola, ikaskuntza pertsonalizatua, taldekatze malguak eta edukiak egokitzea.

Aniztasunari erantzuteko, irakasleek banakako arreta eskaintzen dute, ikasleen garapen akademikoa eta emozionala hobetzeko. Material gehigarriak, errefortzu-saioak eta testuinguru desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira, ikasle bakoitzaren erritmo eta gaitasunetara moldatuz. Gainera, indartze eta sakontze jarduerak proposatzen dira, ikasleek ikasgaiak ondo menderatzen dituztenean, haien jakintza zabaltzeko.

Programazioetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) oinarri hartuta, aniztasunari erantzuteko estrategiak modu inklusiboan planifikatzen dira. IDUren bidez, ikasle guztien gaitasunak eta estilo ezberdinak kontuan hartzen dira, eta materialak, metodologia eta ebaluazio tresnak egokitzen dira ikasleen premietara. Honela, ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra bermatzen da, aniztasunaren aberastasuna baliatuz ikasle guztiek arrakasta izateko aukera izan dezaten.